



**ORIOKUDALA**



## **2022. URTEKO KIROL-EKINTZAK ETA JARDUERAK FINANTZATZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK**

### **1.- ESKUMENA**

Araudi hau Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legearen 4.1 b) eta 25. artikulua ematen dituen eskumenei jarraituz eta Toki Korporazio Zerbitzuen Araudiaren 23. artikuluen eta ondorengo arabera onartzen da. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen eta udal-idazkariak 2012ko maiatzaren 9an proposaturiko «Orioko Udalak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridikoa arautzen duen Ordenantza Orokorra»ren baitan ematen dira.

### **2.- HELBURUA**

Deialdi honen helburua hau da: Orioko irabazi asmorik gabeko kirol-elkartek edo kirol-entitateek 2022an edota 2021-2022 denboraldian beren egiturak garatzeko eta egingo dituzten jarduera eta egitasmoak diruz laguntzeko Udalak erabiliko dituen irizpideak finkatzea eta prozedura zehaztea.

### **3.- LAGUNDUKO DIREN JARDUERA-MOTAK**

Dirulaguntzak kirol-jarduera hauek egiteko eskatu ahal izango dira:

- a) Orioko kirol taldeen OHIKO kirol-jarduerak.
- b) Orion egin nahi diren eta izaera berezia duten EZOHIKO edo aldian behingo kirol-jarduerak\*.

\*Ezohikoak edo aldian behingoak diren ala ez dagokion udal-batzordeak erabakiko du, aholku-batzordeak proposatuta.

### **4.- FINANTZAKETA**

Deialdi honen helburuak lortzeko 102.250,00 euroko diru-kopurua dago Orioko Udaleko 2022. urterako aurrekontuaren partida hauetan:

- 0615.481.01.341.00 Kirolak. OHIKO dirulaguntzak: 54.250,00€
- 0615.481.02.341.00 Kirolak. EZOHIKO dirulaguntzak: 48.000,00€

Aurkeztutako eskaera guztiak aztertu ondoren Udalak baimendutako gastura egokituko da dirulaguntzen kopurua.

### **5.- IRIZPIDE OROKORRAK**

1. Dirulaguntza hauen azken helburua Orioko herrian ariketa fisikoarekin eta kirolarekin zerikusia duten irabazi asmorik gabeko jarduerak bideratzen laguntzea eta sustatzea da.



**ORIOKOU DALA**



2. Dirulaguntza hauek beste batzuekin bateragarriak dira, baina aldez aurretik adierazi eta jakinarazi behar da jarduera horietarako beste erakunderen bati dirulaguntza eskatu zaion ala ez. Edozein kasutan, dirulaguntza guztiak batuta jasotako kopurua ez da inoiz izango gastuen % 100 baino gehiago.

## **6.- ONURADUNAK**

Dirulaguntza hauen onuradun izaera lortzeko betebeharrak azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13. artikuluan xedatutakoak izango dira.

Honetaz gain, Udalaren dirulaguntza eskatu ahal izateko, baldintza hauek ere bete beharko dituzte Orioko kirol-entitate edo elkarteek (2021/22 denboraldiari edo 2022. urteari dagozkien, betiere, kirol-modalitate bakoitzaren arabera):

- a) Kirol-entitate eskatzaileek, euskarari dagokionez, udal-ordenantzetan zehaztutakoa bete beharko dute.
- b) Diru-laguntzaren helburu den jardueraren aurrekontuan aurreikusitako gastuen %50, gutxienez, Udalaren dirulaguntza ez den beste bideren batetik estali beharko dute kirol-entitateek.
- c) Indarrean dagoen legediaren arabera osatuta egon behar dute elkarteek, eta Eusko Jaurlaritzako Elkarte eta Erakundearen erregistroan errolatuta.
- d) Identifikazio Fiskaleko Kodea izan behar dute eta zerga-betebeharretan egunean egon.
- e) Entitatearen egoitza Orion izan behar dute. Egoera hau ematen ez den kasuetan Kirol-batzordeak izango du irizpide hau aplikatu edo ez erabakitzeke ahalmena kasuan-kasuan.

Gainera, ondoren aipatzen diren kasuetan, e) puntuan zehaztutako baldintza aplikatu gabe gelditu daitezke:

- Orion oso jarraitzaile gutxi duen kirol modalitateko elkarteak bada.
  - Haren eragin eremuan kirol elkarterik ez badago.
  - Elkarteak emakumezkoen kirolean jarduten badu.
  - Elkarteak herri kiroleko modalitatearen batean jarduten badu
- f) Udalaren lokalen bat erabiltzen duten elkarteek zorrotz bete beharko dituzte Udalarekin hitzartutako erabilera-arauak.
  - g) Eskola-kirolari buruz Gipuzkoan indarrean dagoen araudia bete beharko dute.
  - h) Onuradunak egunean egon beharko dute Foru Ogasunarekin, Udal Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin dituzten obligazio fiskaletan.



**ORIOKUDALA**



## **7.- BAZTERKETAK**

Deialdi honetatik kanpo hauek geratzen dira:

- a) Azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzatarako Lege Orokorraren 13.2 eta 13.3 artikuluetan aurreikusitako kasuetako jarduerak.
- b) Direnagatik edo duten helburuagatik, kirol-jarduerekin inongo loturarik ez dutenak.
- c) Edozein motatako zerga-betebeharrak eguneratuta ez dituzten kirol-entitate edo elkarteek aurkeztutako eskabideak, baita Udalarekin edota Gizarte Segurantzarekin eguneratuta ez daudenak ere. Dirulaguntza-eskaerarekin batera, eskatzaileak, zerga-betebeharretan egunean dagoela ziurtatu beharko du.
- d) Ez dira aintzat hartuko aurreko edizioetan jasotako dirulaguntza justifikatzeko memoria edo/eta gainontzeko dokumentazioa entregatu ez dituzten jarduerak edo programak.
- e) Ez dira aintzat hartuko beren jarduera publikoetan indarrean dagoen legea (jaiotza, arraza, sexu edo erlijio-iriztiagatik diskriminatzeko debekua) betetzen ez duten kirol-entitate edo elkarten eskabideak.
- f) Onuradunek indarrean dagoen lege-araudia bete beharko dute; besteak beste, Emakume eta Gizonezkoen Berdintasunerako 4/2005 legea. Hortaz, ez zaie dirulaguntzarik emango kideak aukeratzeko prozesuan edo jardunean sexu-bereizkeria eragiten duten kirol-entitate edo elkarteei.

Udalak atzematen badu kirol-entitate edo elkarte batek sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duela, berdintasun-legedia betetzeko baldintza jarriko dio dirulaguntza jasotzeko. Beraz, kirol-entitate edo elkarteak sexuaren ziozko bereizkeria ezaren konpromiso aktiboa duela ziurtatu beharko du.

- g) Merkataritzako enpresak deialdi honetatik kanpo geratuko dira, nahiz eta beren jarduerak zerikusia izan kirol arloarekin.

## **8.- ESKAEREN AURKEZPENA**

Eskaera egiteko, eranskinean jasotako eskaera-orria bete behar da.

Egitasmo edo jardueraren arduradunak eskaera-orri ofizialaren atal guztiak bete beharko ditu eta Udaleko erregistro elektronikoa aurkeztu.

Dirulaguntza-eskaerak, zuriketak, eta bestelako edozein komunikazio elektronikoki egingo beharko da [www.orio.eus](http://www.orio.eus) udal-webgunetik, erregistro elektronikoa erabiliz.

Tramitea elektronikoki egiteko, ezinbestekoa izango da ziurtagiri digitala edukitzea: [www.izenpe.eus](http://www.izenpe.eus) edo baliokidea den besteren bat.



**ORIOKOU DALA**



Dirulaguntzak eskatzeko **azken eguna** deialdiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta **15 egun natural**etako epea igaro ondoren izango da.

Ezohiko jardueratarako dirulaguntza eskatzeko epea jarduera egin baino hilabete lehenago amaituko da; hala ere, urte hasieran zehaztea badago, hala egingo da.

Eskaera-orri ofizialaz gain, agiri hauek ere aurkeztu beharko dituzte eskatzaileek:

#### OHIKO KIROL-JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZA ESKATZEN DUTENEK

- a) Eusko Jaurlaritzaren Kirol Erakundearen erregistroan izena emanda dagoela egiaztatzen duen agiriaren fotokopia (aurreko urteren batean aurkeztu ez bada).
- b) Erakundearen estatutuak (aurreko urteren batean aurkeztu ez badira).
- c) Arduradunen nortasun-agiriaren fotokopia (aurreko urteren batean aurkeztu ez badira).
- d) Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia (aurreko urteren batean aurkeztu ez bada).
- e) Laguntzen den proiektuaren gastuak (kontzeptua eta zenbatekoa) eta diru-sarrerak (jatorria eta zenbatekoa) biltzen dituen aurrekontua, erakunde eskatzailearen organo eskudunak onartua.
- f) Beste udal-atal, erakunde eta abarri egindako dirulaguntza-eskaerak edo dagoeneko onartutakoak zehazten dituen adierazpena.
- g) Zerga bidezko betebeharrak (Foru Ogasuna eta Udalaren Zerga Biltegia) eta Gizarte Segurantzarekikoak eta BEZ araudikoak egunean dutela adierazten duen agiria. Edo, bere kasuan, Oriko Udalari baimena ematen dion agiria, dagokien erakundeetan datu horiek eskuratzeko.
- h) Proiektuan edo jardueran gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna tratatzeko xedaturiko ikuspegia, eta sexu-bereizkeria egin izanaren ondorioz zigorrik betetzen ari ez direlako adierazpena.
- i) Dagokion federazioaren egiaztatzea, 2021-2022 denboraldian edo 2022. urtean kirol-elkarteari eman dizkion lizentziei buruz.
- j) Kirol-elkartearen izenean edo elkartearekin lankidetzaren hitzarmena duten ikastetxeen izenean emandako haurrentzako eskola-lizentzien inguruko inprimakia.

#### EZOHIKO KIROL JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZA ESKATZEN DUTENEK

- a) Eusko Jaurlaritzaren Kirol Erakundearen erregistroan izena emanda dagoela egiaztatzen duen agiriaren kopia.
- b) Erakundearen estatutuak.

- c) Arduradunen nortasun -giriaren kopia.
- d) Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia.
- e) Probaren historia edo nondik norakoak.
- f) Txosten teknikoa, jardueraren antolaketaren zehaztasunak emateko.
  - Parte-hartzaile kopurua.
  - Jarduerak noiz eta non izango diren.
  - Antolaketarako behar diren material eta giza baliabideak.
  - Jarduera antolatuko duen pertsona edo taldearen identifikazioa.
- g) Txosten ekonomikoa, jardueraren gastuak eta sarrerak zehaztuta.
- h) Erantzukizun zibil eta istripuetarako aseguruaren kopia.

Eskaera egindakoan, agiriren bat falta bada, 10 eguneko epea izango du kirol-entitate edo elkarteak aurkezteko eta, behin epe hori amaitutakoan, falta dena osatu ez bada, dirulaguntzari uko egiten diola ulertuko da eta eskaera artxibatu egingo da.

Aurreko urteren batean eskaera egindako elkarte batek aldaketaren bat izan badu (estatutuetan, Identifikazio Fiskaleko Kodean eta abar), aldaketari dagozkion agiriak aurkeztu beharko ditu.

## **9.- DIRULAGUNTZAK EMATEKO EBALUAZIOA ETA IRIZPIDEAK**

Kirol Mahaiak aztertu eta ebaluatuko ditu eskaerak, eta berak proposatuko ditu lehenetsunak eta eman beharreko zenbatekoak. Ondoren, behin betiko diktamena Kirol Batzordean emango da eta dagokion organo ahalduna informatuko du dirulaguntza emateko erabakia hartu dezan.

Dirulaguntzak emateko baloratuko diren puntuak hauek dira:

### **OHIKO TALDE-KIROLEKO JARDUERETARAKO LAGUNTZAK**

- Lizentzia-kopurua
- Emakumeen parte-hartzea.
- Taldeen parte-hartzearen eremua.
- Atal-kopurua
- Urteurrenak
- Antolatzen diren jarduerak
- Aurrekontua



**ORIOKUDALA**

**Euskaraz**  
**bizi-bizi**

- Formakuntza egiten den edo ez.
- Gizarteratze-lana egiten den edo ez.
- Udalarekin edo herriarekin duen kolaborazioa
- UDA kanpainan parte hartzea

#### OHIKO BANAKAKO KIROL EN JARDUERETARAKO LAGUNTZAK

- Lizentzia-kopurua.
- Emakumeen parte-hartzea.
- Kirolarien parte-hartzearen eremua.
- Atal-kopurua
- Urteurrenak
- Antolatzen diren ekintzak
- Aurrekontua
- Formakuntza egiten den edo ez.
- Gizarteratze-lana egiten den edo ez.
- Udalarekin edo herriarekin duen kolaborazioa
- UDA kanpainan parte hartzea

#### EZOHIKO JARDUERETARAKO LAGUNTZAK

- Jardueraren helburuak eta izaera
- Herritarrentzat izatea eta aurkeztutako egitasmoa herritarrei zabaltzea.
- Kolektibo berezientzako jarduerak izatea edo horien parte-hartzea bideratzea: hirugarren adina, haurrak, ezinduak, etorkinak eta, orokorrean, kirol-ekintzetatik aparte egon ohi diren kolektiboak...
- Parte-hartzaileen kopurua, iraupena, jardueraren esparrua eta zabalkundea.
- Jardueraren finantzatze-maila.
- Jarduera antolatzeko azpiegitura eta giza baliabideak.
- Jardueraren lehia-maila.

#### **10.- DIRULAGUNTZEN ORDAINKETA**

Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da.

Lehen ordainketan esleitutako dirulaguntzaren %75 emango da, ebazpena eta dagozkion tramite guztiak egin eta gero.

Bigarren ordainketa (esleitutako zenbatekoaren %25) behin diruz lagundutako jarduera burututakoan eta dokumentazio hau aurkeztutakoan egingo da:

- a) Diruz lagundutako jarduerak sortutako gastu eta sarreraren balantzea, kirol-elkarteko idazkariak sinatua eta elkartearen zigiluarekin.
- b) Jardueraren gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatua, erakundearen idazkariak sinatuta eta erakundearen zigiluarekin, hauek jasotzen dituenak: proiektuaren zenbateko osoa, hartzekodunak eta agiriak (kopuru gordina eta BEZa jasotzen dutenak).
- c) Programa edo jarduerak zabaltzean hizkuntza ofizialak nola erabili diren adierazten duen agiria.
- d) Genero-ikuspegia benetan zenbateraino txertatu den adierazten duen agiria.
- e) Zerga bidezko betebeharrak (Foru Ogasuna eta Udalaren Zerga Biltegia) eta Gizarte Segurantzarekikoak eta BEZ araudikoak egunean dituztela adierazten duen agiria.
- f) Diruz lagundutako jarduerari buruzko txosten edo memoria tekniko osatua.

### **11.- PUBLIZITATEA**

Diruz lagundutako jardueren publizitatea euskaraz egingo da; ele bitan ere egin ahal izango da, betiere euskarari lehentasuna emanez. Orioko Udalaren laguntza nahitaez adierazi beharko da.

### **12.- BALDINTZAK EZ BETETZEA**

Oinarriotan jarritako baldintzak betetzen ez badira, dirulaguntza emateari utzi egingo zaio.

### **13.- INTERPRETAZIOA**

Oinarriotan interpretazioan edo ezarpenean sor litezkeen zalantzak aholku batzordeak tratatuko ditu eta, ondoren, udal-batzordeak erabakiko du.